


Berrigara



*Argosin Kirolgunea,
ni handi egiten naizenean*



Aukera hau galdu behar duzu ?

Opel Corsa Berria

1.410.000 pta*.

OSAGARRIAK

- 1.2 16V 75eko Zaldi Indarreko motorea.
- Gidariarentzako airbag-a.
- Buru-euskarri aktiboak aurrealdean.
- Pedal barneragarriak.
- Segurtasun-gerrikoak pretentsoreekin.
- Direkzio lagundua.
- Kristal-igogailu elektrikoak.
- Itxitura zentralizatua urrun-managailuarekin.
- Funtzio anitzeko pantaila.
- Mantenimendu azterketaren adierazlea.
- 30.000 Km-eroko mantenimendua.
- Faro piztuentzako alarma.
- Karrozeria galvanizatua, korrosioarengatiko zulaketaren aurkako 12 urteko bermarekin.



Opel Astra

1.804.000 pta*.

OSAGARRIAK

- 1.6 84ko Zaldi Indarreko motorea.
- ABS freno sistema.
- Aurreko eta alboko airbag-ak.
- Buru-euskarri aktiboak aurrealdean.
- Pedal barneragarriak.
- Direkzio lagundua.
- Kristal-igogailu elektrikoak.
- Itxitura zentralizatua urrun-managailuarekin.
- Altuera eta sakonera egokitzeko moduko bolantea.
- Lapurreten kontrako geldiarazle elektronikoa.
- Karrozeria galvanizatua, korrosioarengatiko zulaketaren aurkako 12 urteko bermarekin.

Opel Zafira

2.643.000 pta*.

OSAGARRIAK

- 1.6 16V 100eko Zaldi Indarreko motorea.
- Zazpi leku.
- ABS freno sistema.
- Aurreko eta alboko airbag-ak.
- Buru-euskarri aktiboak aurrealdean.
- Pedal barneragarriak.
- Direkzio lagundua.
- Kristal-igogailu elektrikoak aurrealdean.
- Kanpoko atze-ispilu elektriko eta termikoak.
- Itxitura zentralizatua urrun-managailuarekin.
- Altuera eta sakonera egokitzeko moduko larruzko bolantea.
- Lapurreten kontrako geldiarazle elektronikoa.
- Karrozeria galvanizatua, korrosioarengatiko zulaketaren aurkako 12 urteko bermarekin.

Opel Vectra

2.450.000 pta*.

OSAGARRIAK

- 1.6 16V 100eko Zaldi Indarreko motorea.
- Aire girotua.
- ABS freno sistema.
- Aurreko eta alboko airbag-ak.
- Buru-euskarri aktiboak aurrealdean.
- Direkzio lagundua.
- Kristal-igogailu elektrikoak aurrealdean.
- Kanpoko atze-ispilu elektriko eta termikoak.
- Itxitura zentralizatua urrun-managailuarekin.
- Altuera eta sakonera egokitzeko moduko bolantea.
- Lapurreten kontrako geldiarazle elektronikoa.
- Karrozeria galvanizatua, korrosioarengatiko zulaketaren aurkako 10 urteko bermarekin.

www.opel.es

OPEL CREDIT



1,2,3 aukerak: Beti auto berria edukitzeko modurik errazena.

* PVP fabrikatzaileak gomendatutako salneurria penintsulan eta Balear Uharteetan. Prezioak barne hartzen ditu garrisoa, BEZ eta matrikulario zerga. Prever plana berundun gasolinako autoendako eta promozio-deskontua auto hauetan: Corsa Club 1.2, hiru ate 16V 75hp, pakete elektrikoarekin (8.474 euro), Astra Club 1.6 hiru ate 9V 84hp (10.842 euro), Vectra Comfort 1.6 16V 100hp (14.725 euro) eta Zafira Comfort 1.6 16V 100hp (promozio-deskontubank) (15.885 euro).

OPEL

TALLERES OLA

Olabarren auzoa z/g. Telefonoak: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN:

TAKOLO AUTOAK, S.L.

HELBIDE BERRIA: San Andres auzoa 10-D. Telefonoa: 943 77 30 10.



Bilbotik, maitasunez

Maria Urzelai

Lehenik eta behin, azken kurtso honetan Bergaran asko ez naizela libili aitortu beharra daukat. Ez dakit zeintzuk izan diren urteko gertakari aipagarriak, eta San Martin, San Martzial... jai denak galdu ditut. Egia esan, Berrigarako zuzendariak artikulu bat idazteko proposatu zidanean, ez nintzen konturatu herriko errealitateaz ezer gutxi nekiela.

Beraz, leihora joan eta hiriari buruz pentsatzen hasi naiz, Bilbori buruz, lagun eta arerio egin zaidan zulo horri buruz. Bat-batean, bizitzak bere dituen kontrastei erreparatu diet.

Hiriak, herriak, auzoak, etxebizitza multzoak besterik ez izanik ere, portara eta bizimodua erabat baldintzatzen digute biztanleoi. Hiri batean, bizimodu aniztasuna handia da benetan: ez daukate zer ikusirik San Frantzisko auzoko ijitoen bizimoduak eta Deustuko

familienak; Las Corteseko prostitutenak eta Gran Viako dendetan erosten duten emakumeenak; bankuko langile gorbatahunak eta telepizzako banatzaile esplotatuenak.

Badaude tabernak homosexualentzat, beltzentzat, abertzaleentzat... Guggenheima turistentzat eta hotelak enpresa gizonentzat; baita aterpetxe bat aterperik gebekoentzat ere. Polizia de-

«Dena batean, baina ez dena batera. Aniztasuna eta berdintasuna aldarrikatzen duen gizarteak, titaniozko paretak eraiki ditu, inbaditu behar ez dugun eraikina zein den gogorarazteko»

nentzat. Marihuana, kokaina, ardo gorri naparra, euro bat, bi dolar, dirulaguntza soziala. Etxe okupatuak, txaleta Negurin; txistorra eta McDonald's. Arriagara datozen konpainiak eta artista konprometituak; bai eta konpromisozko artistak ere.

Eta kaos honen erdián, askatasun sentsazio ikaragarria. Anonimo izatearen lasaitasuna. Elkarrekintzarako gogo.

Dena batean, baina ez dena batera. Aniztasuna eta berdintasuna aldarrikatzen duen gizarteak, titaniozko paretak eraiki ditu hemen, inbaditu behar ez dugun eraikina zein den gogorarazteko. Baina horma baldar horiek nonahi aurki ditzakegu: Nepalen eta Kroazian, Bilbon eta Bergaran; zure familian, zein neurean. Baina ez dezagun pentsa apurtezinak direnik. Azken finean, denok dauzkagu ileak ipurdian!<

barruan



Iñaki Irizar

Biologoa

«*Bisoi europarrak desagertzeko arrisku handia du. Panda hartzak adinakoa*»

6.



Hipolito Poza

Suhiltzailea

«*Udan baino, hemen suteak izateko arriskua udazkenean eta udaberrian egoten da*»

11.



Diego Valor

Ileapaintzailea

«*Neri aittak edo anaiak mozten doste ilia, bixak pelukeruak die. Arrebia be ikasten dabil*»

13.

hi, gazte!



BEKAK

Teknologia. Nekazaritza eta arrantza sektorearen inguruan, ikertzaile eta teknologiarari izateko 12 prestakuntza beka. Epea: Uztailak 31.

JARDUERAK

Musika. Gasteizko XXV. Jazzaldia uztailaren 14tik 21era.

Bilbo. VI. "Bilbo Tropikalak" nazioarteko musika jaialdia, uztailaren 12tik 15era bitartean.

Basoa. Kantabriar erriberako basoak lehengoratzeko nazioarteko auzolandegiak, uztailaren 17tik 31ra.

IKASTAROAK

Marketing. Goi mailako zuzendaritza ikastaro praktikoa profesionalentzat. Espezialitateak: Marketing-zuzendaritza eta zuzendaritza komertziala. Epea: Urriak 25.

SARIAK

Emakunde. Ondorengo arloetan emakumeen parte-hartzea laguntzen duten erakundeentzako sariak: idatzizko prentsan, irradian, ikus-entzunezkoetan, publikizitatean, kirolean eta hezkuntzan. Epea: Irailak 28.

Antzerkia. "Villa de Mora" V. Antzerki lehiaketa nazionala, talde zaleentzat zuzendua. Epea: Uztailak 31.

LANA

Lankidetzaren parte-hartzerako teknikari laguntzaile udalean. Irungo Udala. Epea: uztailak 26.

Antolakuntza eta kalitate teknikaria. Irungo Udala. Enpresaritzan edo ingeniariaritzan lizentziatuak. Epea: uztailak 21.

Zenbait lanpostu. Arrasateko Udala. Euskaltegi irakaslea (1), osasun laguntzaile teknikoa (1), liburutegian laguntzailea (1), udaltzaina (6), administrari laguntzailea (2) eta kiroldegietako mantenuko ofiziala (1).

KARNETAK

Nazioarteko Aterpekeide, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zator Gazte Informazio Gunera.

INFORMAZIO GEHIAGO:

BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA: Kultura Etxeko bulegoa eta panelak, eta Irizar jauregiko panelak. Telefonoa: 943 77 91 57.

E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net
Uztailako ordutegia:
Osteguna: 08:30-13:30 eta 16:00-20:00.
Ostirala: 08:30-13:30.
Abuztuko ordutegia (bi asteetan itxita):
Osteguna eta ostirala: 08:30-13:30.

OHARRA. Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizueke Gazte Informazio Gunera igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketaren eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazteei nahiz probintzia guztikoei informazioa zabaltzeko. Mila esker.


bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Ixukia

Izutia, lagun gutxiakoa, bakartia, lagun artean lotsatzen dena.

— *Ondo lotsatxia ta ixukia intzanan ba txikittan.*



hau giroa!

San Juan auzoan jasotako datuak

Luis Mari Agirre

Uztailak 5, eguena

Uztailak 6, egubakoitza

Uztailak 7, zapateria

Uztailak 8, domeka

Uztailak 9, astelehena

Uztailak 10, martitzena

Uztailak 11, eguaztena

	Temperatura maximoa	Temperatura minimoa	Euria
	24 °C	12 °C	10,5 l/m ²
	20 °C	15 °C	5,1 l/m ²
	25 °C	11 °C	0,6 l/m ²
	20 °C	16 °C	6,4 l/m ²
	23 °C	15 °C	— l/m ²
	21 °C	12 °C	0,2 l/m ²
	22 °C	13 °C	— l/m ²

mezak

Santa Marina

Domekak: 11:30, 13:00.
Zapatuak: 19:00.

San Pedro

Domekak: 09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:15.

Sierbak

Lanegunak: 19:30.

Osintxu

Domekak: 11:30.
Zapatuak: 19:00.

Elosu

Domekak: 10:30.

Ubera

Domekak: 10:30.

San Juan

Domekak: 11:00.

San Prudentzio

Domekak: 10:30.

URTE-MEZAK

Santa Marina

Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.

San Pedro

Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

Labegarieta

Domekak: 11:00.

San Lorenzo

Zapatuak: 20:00.

Angiozar

Domekak: 11:00.

Monja

Zaharrak

Domekak: 18:00.

Zapatuak eta lanegunak: 20:00.

Mizpirualde

Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 17:30.

Antzuola

Domekak: 09:00, 11:30.

Zapatuak eta lanegunak: 19:30.

Uzarraga

Domekak: 10:00.

urbanoa

San Lorenzo/San Juandik irteerak

07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Mugertza, Zubieta, San Martin plaza, San Antonio (Zumelaga aurrean), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta/Olabarrenetik irteerak

07:20 , 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

kontuan hartu...

FARMAZIAK

EGUBAKOITZA 13:

CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74

ZAPATUA 14:

PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87

DOMEKA 15:

PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87

ASTELEHENA 16:

GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05

MARTITZENA 17:

PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87

EGUAZTENA 18:

ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63

EGUENA 19:

GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05

OGIA

DOMEKA 15. Ogizun

TELEFONOAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40

Bergarako udaltzaingoa. 943 77 91 06

Antzuolako udaltzaingoa. 943 76 62 46

Ertzaintza. 943 76 53 40

Osasun Etxea. 943 76 24 40

Asepeyo. 943 76 16 43

Pakea. 943 76 13 49

Angiozarko medikua. 943 78 90 27

Antzuolako medikua. 943 76 62 23

Odol emaleak. 943 76 16 24

Alkoholiko anonimoak. 943 76 51 06

GARRAIOAK

Taxiak. 943 76 19 50

UDALA

Bergarako udaletxea. 943 77 91 00

Antzuolako udaletxea. 943 76 62 46

Udal Artxiboa. 943 77 91 32

Igerilekuak. 943 76 20 51

Kultur Etxea. 943 77 91 58

Liburutegia. 943 77 91 62

Kiroldegia. 943 76 56 41

Mizpirualde Egoitza. 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia. 943 76 14 92

Erregistroa. 943 76 13 15

Jardun. 943 76 36 61

Idolaz. 943 76 65 08

Jubilatuena Etxea. Bergara. 943 76 21 40

Antzuolako jubilatuena elk. 943 76 62 71

Postetxea. 943 76 26 85

Bedelkar. 943 76 04 68

Akulu AEK. 943 76 05 18

Udal euskaltegia. 943 76 44 53

Bergarako notaritza. 943 76 10 73

jardunen agenda

■ **Begirale lan-poltsa:**
astebukaeretan 8-11 urteko gaztetxoekin lan egiteko begirale lan-poltsa osatu nahi da. Interesatuok bidali curriculuma Jardunera (Kartzela zaharra, Juan Irazabal z/g, 20570 Bergara) edo ondorengo telefonora deitu: 943 76 36 61.

■ **Koadrillategi egitasmorako dinamizatzaileak:**
baldintzak: 20 urte beteta izatea, Bergaran edo inguruan bizitzea, euskara menperatzea. Pedagogia, Gizarte Hezkuntza, Soziologia edo Magisteritza ikasketak egiten bazabiltza edota gazteekin aisialdian lan egitea nahi baduzu, bidali curriculuma Jardunera (Kartzela zaharra, Juan Irazabal z/g, 20570 Bergara). Informazioa: 943 76 08 19 eta 943 76 36 61.

■ **Dinamizatzaile lanpostua:**
egun erdiko jardunerako dinamizatzailea behar dugu Jardunen. Jardunen kultur ekintzak proposatu eta aztertzea izango da bere lana.

Proiektuak abian jartzeaz ere arduratuko da. Antzeko betebeharretan eskarmentua izatea baloratu egingo da. Euskara ahoz zein idatziz ondo jakitea derrigorrezkoa da. Izena emateko epea irailaren 14an bukatuko da.

■ **Idazkari-koordinatzaileen lan-poltsa:**
Jardunen dinamizatzaile lanak egitea izango da bere ardura, bai eta beste elkarteekiko harremanez arduratzea ere; diru eta kudeaketa lanez ere arduratuko da. Kontularitza jakitea beharrezkoa da. Antzeko lanetan izandako eskarmentua baloratuko da. Euskara ahoz zein idatziz ondo jakitea derrigorrezkoa da. Izena emateko epea irailaren 7an bukatuko da.

*Hurrengo alean,
uztailaren 20tik 26ra
bitartekoan zorion agurrak
argitaratuko ditugu.*

zorionak!



Iosu Marzo
15ean 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Ane Markiegi
14an 11 urte.
Urte askotarako!
Egoitz eta etxekoak.



Nerea Marzo
17an 10 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Gurutz Axpe
13an 3 urte.
Urte askotarako!
Maria Jose eta familiakokak.



Jon Ander Rodriguez
15ean 9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Nekane Alegria
15ean 9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Maitane Garate
13an 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Oihana Garate
13an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Ander Najera
13an 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Maddi Mujika
15ean 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Ismene Goiti
14an 8 urte.
Urte askotarako!
Manex eta gurasoak.



Saioa Unamuno
14an 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Garazi Ortuzar
19an 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak, Iker, Irati eta Ariane.



Amaia Arrayago
13an 10 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Leire Azkarraga-Urizar
17an 8. Urte askotarako!
Gurasoak eta, Ainhoa.



Aritz Rodrigo
18an 4 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak, familia-koak eta Iraia.

Larkano
KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK
Barrenkalea 15-17. BERGARA.
Tf. 943 76 25 03

BANKINTER
%3,5 etik aurrera lehen 6 hilabeteetan
Euribor-a + **%0,50** garbia, ondoren*
*Irekiera komisioa: %1.
35 urte bitartearaino

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...
Irizar pasealekua 2 behea
☎ 943 76 59 54 BERGARA

Mujika
geologia
Berezitasunak:
Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak
Artekalea 3 BERGARA 943 76 10 34

GAZTELU
BURDINAKI DENDA
Mintegi, 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

BOLU SUKALDEAK
Zure sukaldearen diseinua eta aurrekontua konpromiso barik
Bolu, 22-behea, BERGARA
Tel. eta faxa: 943 76 27 02

Iñaki Irizarrek Goierriko Euskal Eskola Kultura Elkarteko beka jaso berri du bi kideekin batera, X. Gerriko Ikerketa Beka, hain zuzen. Urtebetean, Goierri aldeko bisoi europarra aztertuko dute.

IÑAKI IRIZAR
Biologoa

«Bisoi europarrak desagertzeko oso arrisku handia du»



Liburu batean bilduko dute bisoiaren azterketa Iñaki Irizar eta bere bi kideek.

G. Zergatik bisoi europarra?

E. Biologoak gara. Zoologia ikasi dugu Oviedon, hirurok batera. Batez ere, ugaztunak gustatzen zaizkigu. Eta hainbat aukera egon arren, bada, bisoi europarra aztertzea erabaki genuen. Orain, beka horren bidez, aukera izango dugu Goierri aldeko bisoi europarra aztertzeko.

G. Hortaz, badaude bisoi europarrak Euskal Herrian.

E. Bai. Granjetako bisoia, guk ezagutzen duguna, amerikarra da. Guk europarra aztertuko dugu. Biologokoki espezie ezberdinak dira. Haragijaleak dira biak, eta errekan bizi dira, baina hori besterik ez dute elkarrekin. Bisoi amerikarra, berez, Ipar Amerikakoa da, eta mende hasieran Europako granjetara ekarri zuten. Gero, granjetatik leku askotara ihes egin eta bertakotu egin da. Horregatik bizi da hemengo erreketan. Araban, esaterako, bisoi amerikar bertakotuak daude.

G. Baina Amerikako erreketan bisoia zegoen moduan, Europako erreketan ere bertakoa dago.

E. Hori da. European erbizimodu bereko beste espezie bat dago: bisoi europarra, hain zuzen ere, eta nahiko historia bitxia du.

G. Zein da historia hori?

E. XIX. mendean, iberiar penintsularen iparraldean hasi, Europa osoan, Finlandia hegoaldea barne, eta Uraletaraino zegoen heda-

tuta bisoi europarra. Oso animalia arrunta zen kontinentean. Azken urteetan, baina, desagertzeko joera izan du leku guztietan, eta ez dago argi zergatik izan den.

Gaur egun, ia kontinente osoan desagertu da. Frantziako hego-mendebalean, Euskal Herri ia osoan, Estonian, Bielorrusian eta Erru-

«Hipotesi asko dago, baina ez dakigu ia Europa osoan zergatik galdu den bisoia, ezta Euskal Herrian zergatik bizi irau duen ere»

sian bakarrik geratzen da. Oso animalia arrunta izate-tik, bat-batean, oso arraroa izatera igaro da.

G. Zerk eraginda?

E. Hipotesi asko dago, baina zergati garbirik ez. Euskal Herrian zergatik bizi irau duen ez dago argi. Errusian, oraindik, desagertzten ari da, eta munduan, haragijaleetan, desagertzeko arrisku handia duenetakoa da. Gainera, oso ezezaguna da. Edozeinek daki Txinako panda hartza desagertzeko arriskuan dela. Bada, bisoiak arrisku bera du, maila berean dago. Eta, alde horretatik, oso animalia erakargarria da. Oso gutxi iker-tu dute, oso gutxi dakigu animalia horretaz...

G. Desagertzeko arrisku horretan, larruak badu zerikusirik?

E. Ez. Ez du Amerikako bisoiaren moduko larrurik. Garai batean harrapatuko zituzten, baina ez dut uste hori izan denik galtzeko arrazoiak. European erregistro ugari dago larrugintzarako erabiltzen ziren animaliei dagokienez, eta espezie hau ia ez da azaltzen.

Bisoi amerikarrak bai egiten dio kalte. Esan bezala, granjetatik ihes egindako bisoi amerikarra bertakotu egin da toki askotan. Eta toki horietan hemengoa ordezkatu du. Dena dela, amerikarra ekarri aurretik desagertzten hasita zegoen europarra.

G. Zein da lanaren helburua?

E. Hiru gauza jakin nahi dugu: Gipuzkoan, bakarrik Oriar arroan dagoela ikusita, eta batez ere Goierriin, jakin nahi dugu zein erreka zatitan dagoen eta zeinetan ez. Hori kontserbazioari begira; bigarrena da jakitea zenbat dauden toki jakin horretan. Eta, hirugarrena, zein habitatu aukeratu duten.

Santa Ana ermitari erantsitako eraikina bota zuten martitzenean

**Errotalde parkea berri-
tzeko urrats bat gehiago
eman du Udalak aste
honetan. Martitzenean
Santa Ana ermitari eran-
tsitako eraikina bota zu-
ten. Ermita datorren ur-
tean berrituko dute, eta
ondoren, parkea.**

Ingerieria Construcción Excavaciones SL enpresa arduratu da Santa Ana ermitari erantsitako eraikina botatzeaz, eta aurrekontua hiru milioi eta erdikoa da.

Lan hori Santa Ana ermita zaharberritzeko planaren barruan dago. Izan ere, ermita goitik behera konpontzeko asmoa du Udalak. Lan horiek hogeita hamasei milioi pezeta inguruko aurrekontua dute, eta Udalak ez



Santa Ana ermita datorren urtean berrituko dute.

die lanei ekingo, Diputazioak dirulaguntzarik emango duen jakin arte. Hala ere, udaleko iturrien esanetan, dirulaguntza hori ez da aurtentz helduko. Eta horregatik, hain zuzen, aurtengo aurre-

kontuetan jaso beharrean, datorren urteko udal aurrekontuetan jasoko dute ermita birgaitzeko diru partida. Ondorioz, ermita datorren urtean birgaituko dute, seguru-
rue-
nik.

BARRUTIK ETA KANPOTIK

Aurreko aldi baten ermitaren estalkia konpondu zuten, eta ermitaren barrualdea eta kanpoaldea konpontzeko daude oraindik. Horretarako, ermita osatzen duten elementuak berreskuratu egingo dira, eta material berria ezinbestekoa denean baino ez dute erabiliko. Ataria guztiz berrituko dute. Barrualdean koroa, eskailerak, leihoak eta bidrierak konponduko dituzte. Paretak margotu egingo dituzte, eta baita saneamenduak, sare elektrikoa eta argiztapena eta klimatizazioa jarri ere. Kanpaia ere konponduko dute. Ermita berritu eta gero, kontzertu txikietarako erabiltzeko aukera aztertzen dihardute udalean.

Madrileko atentatua salatzeke kale bilkura

Joan den eguazten eguerdian hainbat lagunek kale bilkura egin zuten San Martin plazan. ETAK, martitzenean, Madrilen egindako atentatua salatzeke batu ziren. Atentatuan Luis Ortiz de la Rosa polizia hil zen, bonba-auto baten leherketaren ondorioz.



 **ARRI**
Industri
hornidura

Zubiaurre, 30
Tf. eta faxa: 943 76 19 04.
Sakelakoa: 656 78 64 84.



**Sukaldeak.
Horma armairuak.
Neurrira egindako
altzariak.
Ateak eta leihoak.
Arozlanak.**

BERGARA ☎ 943 76 58 86



*Asteburuetan bertako
babak eta saiheskia*


SALBADOR 10 **ELGETA**
Tf. 943 76 82 73

Lacor SAko langileek bertan behera utzi dute greba

Joan den martitzenean utzi zioten grebari Lacor SA enpresako langileek. Sei egun egon dira greban, uztailearen 2an Hitzarmen duinagoa eskatzeko muga gabeko greba hasi zutenetik. ELA eta UGTko ordezkarien esanetan, Lacorren gehiengoa duten sindikatuak enpresako zuzendaritzarekin bildu ziren astelehenean, baita adostasunera heldu ere.

ADOSTUTAKOA

Langileek sei puntuko zerranda aurkeztu zioten astelehenean zuzendaritzari. Honako hau adostu dute: aurten, soldata %5 igoko diete langileei, eta beste hamar pezeta orduko, erreleboen kasuan. Biak kontuan



Lacorrek langileak joan den egunean egindako manifestazioan.

hartuta, %5,5eko igoera izango dute.

Datorren urteari begira, soldata %4,5 igoko diete, eta errelebo ordu bakoitzeko hamar pezeta. Guztira %5,25. Horrez gain, gauze lan egiteagatik %25 gehiago

kobratuko dute datorren urtean. Bajei dagokienez, lan istripuak eragindakoak badira, %100 kobratuko dute Lacorrek langileek, eta baita, gaixotasunaren ondorioz ospitaleratu beharra izanez gero ere.

Langile berria kontadoreak irakurtzeko

Luis Miguel de Benito udal langileak irakurriko ditu hemendik aurrera ur kontadoreak. De Benitok Jose Antonio Mendikutereren lekua hartuko du.

Hori dela eta, lan horretan, etxez etxe, aurpegi berriak jardungo duela aditzera eman nahi izan du Udalak.



Luis Miguel de Benito.

Hastear dira indusketak Osintxuko tailerrean

Uztailean, seguruenik, hasiko dira Osintxuko tailer zaharrea indusketa lanak. Eliza pareko tailer azpian, antzinagoko paretak zati bat eta horma-bular bat aurkitu zituzten udal museologoak eta Diputazioko arkeologo batek egindako azterketan. XVI. mendeko edo lehenagoko ermita baten arrastoak izan litezke. Indusketek argituko dute hori. Lanak egiteko Diputazioaren dirulaguntzaren zain egon da Udala. Laguntza aginduta dago, eta Aranzadi Zientzia Elkarteak lanean hasiko da, uztailean, seguruenik.



IBARGYREN PENTSYAK

BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79



ANCEPEK homologatutako diploma

Ile apaintze eta estetika zentruak
Kalitatezko irakaskuntza

MATRIKULA ZABALIK

DAMKAR'T
Eibar. 943 12 15 18

Bergaran ere ikusten da Goiena Telebista, martitzenetik, UHF 57an

Martitzenetik bergararrok ere ikusten dugu GOITB. San Migelen jarritako behin-behineko antena txiki bati esker, UHF 57 kanalean ibar osoko informazioa jasotzeko aukera dugu.

Edonola ere, katea sin-tonizatu eta seinalea ondo heltzen ez bada, nor bere antena San Migelera begira jartzea baino ez dago.

Pazkoetan egin zen mo-
duan, aurten ere jaietarako jarri nahi zuten Goienakoek emisioa Bergaran. Hala ere, ordurako ezin izan zen jarri instalazioa.

GOITBk uztailaren 19a arte emitituko du, eta irailaren 3an ekingo dio berriro.



Egubakoitzetako *Astebete* saioa GOITBn.

Kontua da telebistaren egoitza nagusian, Arrasaten, hainbat hobekuntza egin behar dituztela: editatzeko bi gela digital berri jarriko

dituzte, baita emisio eta grabazio sistema automatizatu berriak ere. Hori da emisioa uztailaren 19an eteteko arrazoia.

UDALAREN ERANTZUNA 23KO UDAL BATZARREAN

Bergarako Udalak, oraindik, ez du Goiena egitasmoaren gainean erabakirik hartu.

Ekainaren 25eko udal batzarrean, hilabetea amaitu aurretik erabakiko zutela esan zuen Victoriano Gailastegi alkateak. Eta atzo, egue-
na, BERRIGARATI aditzera eman zionez, dagoeneko erabakia hartuta dute.

Erabakia zein den, hala ere, ez du aurreratu nahi izan alkateak. Bere esanetan, uztailaren 23an egingo duten ohiko osoko bilkuran emango du aditzera bere taldeak Goiena egitasmoaren inguruan hartutako erabakia.

Lan eskaintzak

Idazkaria /koordinatzailea

Lan poltsa

EGINKIZUNAK:

Elkartearen dinamizatzaile izatea.
Elkarteko taldeen arteko koordinazioaz arduratzea.
Beste elkarteekiko harremanez arduratzea.
Diru eta gestio lanez arduratzea.

BALDINTZAK:

Euskara ahoz zein idatziz jakitea.
Kontularitza jakitea.
Eskarmentua baloratuko da.

IZENA EMATEKO EPEA:
Irailaren 7a.

Dinamizatzailea

Egunerdiko jardunerako

EGINKIZUNAK:

Kultur ekintzak proposatu eta aztertzea.
Proiektuak abian jartzea.

BALDINTZAK:

Euskara ahoz zein idatziz jakitea.

BALORARTUKO DA:

Kultur arloan eskarmentuduna izatea.

IZENA EMATEKO EPEA:
Irailaren 14a.

Begiraleak

2001-2002 ikasturterako

EGINKIZUNAK:

Aisialdiko ekintza eta programak aurrera eramatea.

BALDINTZAK:

Euskara ahoz zein idatziz jakitea.

CURRICULUMAK BIDALTZEKO EPEA:
Irekita dago.



Kartzela zaharra, Juan Irazabal z/g,
20570 Bergara
943 76 08 19

Berrigara

460 zenbakia.
2001eko uztailaren 13a.

Irizar jauregia. Barrenkalea 33.
20570 Bergara.
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta elektronikoa:
berrigara@topagunea.com
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Edu Mendibil.
Erredakzioa: Monika Belastegi,
Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Mireia Larrañaga.
Harpidetza: Nerea Lazpiur.
Testuen zuzenketak: Sergio Azkarate,
Gari Bragado.
Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate,
M. Angel Elkorobereziabar, Alex Labaien,
Estepan Plazaola.
Komikiak: Peru Azkarate, Oihan Vega,
Usoa Mendikute, Gorka Ortega &
Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.
Kolaboratzaileak: Luis Mari Agirre,
Maitane Arizabaleta, Juan Martin
Elexpuru, Gorka Ortega.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk.
(Zubillaga. Oñati).

Azaleko irudia: udaleku irekietako
neska-mutikoak.

Tirada: 5.600 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanetan eta
irritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Bergarako
Uda



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jaurritzakako
Kultura saila

atrebentzia ezpada

Hemen, Bergaran, egingo ziñuke nudismua? Egittekotan, zein lekutan?



Markel Goenaga

Bai, etxian egingo neuke.
Dana dala, ez dot sekula
be egin. Bergaran,
Gorlan-edo egongo da toki
aprososen bat.



Jose Ramon Embil

Ez, ez neuke praktikauko,
eta herrixan askoz be
gutxiago.



Ana Mujika

Ez. Ondo pentsatzen jat
nudismua praktikatzia,
baiña neuk ez dot egitten.
Egunen baten igual egingo
dot, baiña Bergaran ez.



Lide Oregi

Nik ez. Dana dala, ez dot
txarto ikusten. Hori
norberak ikusi bihar dau.



Carmen Velasco

Ez, ez Bergaran eta ez
kanpuan be; baiña ez dot
gaizki ikusten nudismua
praktikatzia; norberak nahi
dabena egittia dauka.



Iñigo Loiti

Ez Bergaran eta ez inun be.
Gaiñera, ez jat gustatzen
hondartzara juatia eta
eguzkixa hartzia. Dana
dala, ondo ikusten dot.

tira biraka peru azkarate



adituen esanetan

Suteen prebentzioa

Gure inguruan ez da sute askorik izaten. Gainera, udan baino, arriskua udaberrian eta udazkenean izaten da; negua suabea izan bada, udaberrian lehen beroaldiekin sua sortzeko arriskua dago, eta, halaber, uda lehorraren denean hego-haizearekin arazoak izan daitezke udazkenean.

Kasu gehienetan suteak arduragabekeriaren ondorioz pizten dira, baserrietan eta adarrak erretzerakoan, esaterako. Bestalde, mendiak oso zikin daude, eta horrek ere izan dezake

zerikusia suteak sortzeko. Zenbaitetan, hari elektrikoetan gertatzen diren kalteengatik edo erretzaileen arduragabekeriengatik (zigarrokinak bide bazterrean botatzen dituzte askotan) izaten dira suteak. Eragindako suteen kopurua, berriz, oso baxua da Euskal Herrian.

Handia denean, suari aurre egiteko hainbat modu dago: alde batetik, erregaitasuna (egurra edo belarra basoko suteetan) eta haizea saihestu behar dira, eta, bestetik, badira adituek erabil



HIPOLITO POZA

Suhiltzailea

«Mendiko suak prebenitzeko, oso garrantzitsua da mendiak garbi izatea, zikinkeriak ere zerikusia du-eta suteak sortzeko»

ditzaketan metodoak. Mendiko aldapa eta haizea kontuan hartuta, suari bidea oztopatzeko, su hartu dezakeen materiala kendu behar da. Bestalde, bada arriskutsuagoa den teknika bat, kontrastua izenekoa: sua datorren noranzkoaren kontra, kontrolatutako sua egiten da, suak aurrera egin ez dezan. Haizearen noranzkoa aldatzen bada, oso teknika arriskutsua da hori. Inoiz sua parean egokitzen bazaigu, dagoeneko erre diren tokiak jo behar dugu, betiere haizearen noranzkoaren kontra.

Bestalde, sua pizteko baimena Diputazioko Mendi Zerbitzuak ematen du, eta egun berotsuetan eta haize handia dabilenean ezin da surik egin. Mendiko suak prebenitzeko, oso garrantzitsua da mendiak garbi izatea. Sua egiten denean (janaria prestatzeko, adibidez) ingurua garbitzea komeni da, sua zabal ez dadin. Kontrolik gabeko sua ikusten bada, lehenbailehen 112 telefono zenbakira deitu behar da.

bergarako zuhaitzak



Olibondoak Ibargarai hiribidean.

Olibondoa

Olea europaea

Etimologiaren arabera, olea izena latinetik dator, eta bere esanahia olioia da; europaea, ordea, bere jatorriari deritzo, hau da, isuri mediterraneoko zuhaitza da.

Baxua izan arren (4-8 m.), bizitza luzeko espeziea da, 1.000 urtetik gora bizi daiteke. Enborra motza, lodia eta okerra du eta azala grisaxka eta zartatua.

Adar ugari ditu, zuzenak eta azal leunekoak. Hostoak iraunkorrak dira, hots, hostoak urte guztian zehar mantentzen dituzte, forma lantzeolatuak dituzte eta aurrealdetik berde-grisaxkak dira eta azpialdetik zilar kolorekoak.

Maiatzean eta ekainean loratzen da, lore txikiak eta zuriak ematen ditu, fruituak (olibak) ordea, udazkenean heltzen dira, eta azaroaren azken aldera edo abenduan biltzen dira.

Zuhaitz hau batik bat oliba olio ateratzeko landatzen da, baina geroz eta gehiago ikus daiteke zuhaitz apaingarri gisa, gure herrietako kale eta parkeetan; Bergaran adibidez, Ibargarain ikus ditzakegu ale bakar batzuk.

Egurra gogorra, trinkoa eta dentsitate handikoa denez, ebanisterian eta tornerian estimazio handikoa da, ongi lantzen baita. Hostoak sendabelar gisa erabiltzen dira, eta propietate diuretikoak dituzte: odol tentsioa jaisteko, lasaitzeko eta bihotzeko taupaden erritmoa jaisteko erabiltzen dira. Olibak mingotsak izaten dira, eta jan aurretik modu askotara prestatu ohi dira. Olibak prentsatuz oliba olio ateratzen da, hainbat eta hainbat aplikazio dituen, nola dietetikan, hala medikuntzan zein industrian.

Testua: Maitane Arizabaleta.

Argazkia: Miguel Angel Elkorobezibar.



Kasu gehienetan suak arduragabekeriaren ondorioz etortzen dira.


Turistak barra-barra

Uda partean **gero eta turista gehiago** ibiltzen da, baita Bergaran ere. Oraingo astean bertan, bisita gidatu bat egiten ari zen talde bat ikusi dugu, **Getxoko erretiratu talde bat**, hain zuzen ere. Turismo Bulegoko arduradunarekin ari ziren Bergarako monumentuak bisitatzen. Gero, **Oñatira eta Zarautzera** joateko asmoa zuten.



Mizpirualdetik Altzasura

Joan zen zapatuan, hilak 7, **bazkaria** izan zuten **Altzasu elkartean Mizpirualde egoitzakoek**. Elkartekoek urtero-urtero gonbidatzen dituzte bazkaritara egoitzakoak. **Juan Luis Bilbao** izan da aurten ere antolatzaile nagusia. **Jabier Mendizabal eta Elias Lete**, berriz, sukaldean aritu ziren. Berrogei bat lagun egon ziren guztira. Bazkalostean, musika emanaldia ere izan zuten **Gerardo Mondragon eta Salvador Olabarria** abeslariaren eta **Sagastume** soinu jotzailearen eskutik.



San Martzialetik mariskoarekin

Bergarako Bai Euskal Herriari taldeak mariskada ederra zozkatu zuen **San Martzial egunean**. 179 zenbakidun txartela izan zen zozketako irabazlea, **Klara Gabilondoren txartela**, hain zuzen ere. Zorionak, bada, eta on egin!

Aitxaren ofizioari eutsiz, Diegok (27 urte) ile-apaintzaile ikasketak egin zittuan Eibarren. Orain dala zortzi urtetik ari da San Lorentzoko pelukerixan lanian baiña 15 urtekin hasi zan aittakin batera lanbidia ikasten.

Diego Valor



Ilia motza ala luzia?

Oin luziagoa daukat, baiña motza euki dot beti.

Zenbatero mozten dozu ilia?

Bi hilabetetik behin-edo.

Eta zeñek mozten dotsu?

Aittak edo anaiak, bixak pelukeruak die. Laister arrebak be, ikasten dihardu-eta.

Pinpiriña zara?

Bai, nire burua zaintzia gustatzen jat.

Ilia tindatzekotan, zein kolore?

Brilluak eta metxak egin dittut, baiña ez nuke kolore batekin tindatuko.

Ilia soildu arte moztuko ziñuke?

Ez, 2ra moztu izan dot, baina soildu arte...

Orrazkera politta duen pertsona ezagun bat?

Esther Arroyo, *Periodistas* telesaillekua.

Eta zeñi aldatuko jatzun orrazkera?

Klaudio Landari.

Lan gehixen, noiz?

Oporren bezperatan.

Laneko gauzarik onena?

Jendearekin tratua.

Eta txarrena?

Ordu asko zutik pasatzen dotela.

Lanean irratixa ala musikia?

Irratixa.

Irrati programa bat?

Siglo XXI, Radio 3ekua.

Txikittan zer izatia nahi ziñuan?

Txikittan ondo pasatzia nahi neban.

Juergazalia zara?

Bai, dantza egittia asko gustatzen jat.

San Ferminetan egon zara?

Aurten ez, behin bakarrik egon naiz. Entzierroak bai, telebisiñotik ikusten dittut.

Udan, hondartza ala pizinia?

Ez bata eta ez bestea. Nahixago dot pantanora juatia.

Janari eta edari bat?

Rapea plantxan eta laranja ura.

Kiroliek egitten dozu?

Karatia gustatzen jat, baiña ez daukat nahi beste denborarik...

Gustoko jantzi bat?

Praka bakeruak.

Emakume batengan, zertan fijatzen zara lehenbizi?

Begixetan.

Manixa bat?

Altu berba egitten dotela.

Kolore bat?

Urdiña.

Loterixan 200 millioi irabazitta, zer egingo ziñuke?

Hobeto bizi.

Bidaia bat, nora?

Urrin, Australiara edo Zeelanda Barrira.

Zeinek irabaziko dau Tourra?

Belokik edo Igorrek irabaztia nahiko nuke, baiña Armstrong da faboritua.



*Gozogintzan
aitzindari.*

ARANE KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.
Tel. 943 76 74 09
670 483 903

etxalar

kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
943 76 50 68

Afariak ematen ditugu



Artekalea 14. Tf. 943 76 20 42

GUREN PINTURAK

Pintatze lanak orokorrean

Irala kalea z/g
Tel. eta faxa: 943 76 33 01

ARDATZA Brikolajea

Ateak eta zokaloak
Horma-armairuak
Sarrailak eta heldulekuak
Koadroak markoan ipini
Era guztietako moldurak
Apalak
Kaxoiak

Masterreka, 4-behea
☎ 943 76 18 93

Agorrosin kirolgunea

Irailean hasiko dira arkitektoak behin betiko proiektua egiten

Maiatzean esleitu zien udalak kirolgune berriaren proiektua Perez de Amezaga eta Muntañola arkitektoei. Oraingo, aurreproiektua idatzi dute, eta irailean hasiko dira behin betiko proiektua idazten. Lau hilabete izango dute horretarako. Proiektua idazten hasi aurretik, baina, aurreproiektuari hainbat aldaketa egingo dizkio Udalak. 2002an lanekin hastea espero dute Udaleko arduradunek.

Hori dela eta, Bergarako kirol elkarteekin hartu-emanetan dabil Udala. Hainbat batzar egin dituzte dagoeneko, azkena joan den astean. Batzar horietan kirol elkarteetako arduradunen eta kirolarien euren iritziak jakin nahi izan ditu Udalak, eta zein beharrian dituzten kontuan hartu, gero aurreproiektuari egin beharreko aldaketak egiteko. Gaur arte, egubakoitza, daukate kirol elkarteetako kideek Udalari euren proposamenak aurkezteko epea. Proposamen eta iritzi guztiak aztertu ondoren, egoki ikusten dituzten aldaketak egingo dizkiote aurreproiektuari kirol eta hirigintza batzordeko arduradunek. Irail hasierarako aldaketen berri emango diete arkitektoei, eta lau hilabetean bukatu beharko dute behin betiko proiektua.

AURREPROIEKTUA OINARRI

Aurreproiektua izango da behin betiko proiektuaren oinarria. Igerilekuak, aurreko aparkalekua eta Ipintza futbol zelaia hartzen ditu aurreproiektuak. Oraingo instalazioak bota eta hutsetik hasiko dira lanak egiten. Kirolgune berriak igerilekuak eta futbol zelaia izango ditu; baita gimnasioak, taberna eta hiri-bainuetxea ere.

Hiru igerileku egingo dituzte aurreproiektuaren arabera: igerileku handia, umeendako txikia eta aisiarako beste bat. Oraindik ez dute erabaki igerileku handiak zer neurri izango duen; bi aukera aztertzen ari dira: 25x25 edo 21x25 metro izango ditu. Igeri elkarteetako kideak ez daude ados proiektuan aurrez ikusten dituzten aukerekin: «gaur egun 50x21 metroko igerilekua eta 25x10,5eko beste bat izanda, lotsa-

garria da bat bakarra egin eta, gainera, 25x25ekoa egitea. Aurrera egin beharrean, hori atzerapausoa dela iruditzen zaigu. Ez dugu uste kasurik egingo digutenik, baina gure proposamena aurkeztuko dugu». Bestalde, igerilekuetarako ohiko aldagelak, bakarkakoak eta taldekakoak, izango dira, baina gutxitu fisikoendako eta umeekin doazenendako ere egingo dituzte.

UDAKO GUNEAN ZERBITZU UGARI

Aisiarako igerilekuari estalkia kenduko diote udan; beste biak, oster, estalita egongo dira urte osoan. Udan hirurei estalkia kentzea aurrez ikusten zuten arren, hasierako planteamendu hori aldatu egin dute, arkitektoen aholkuei jarraituta.

Hortaz, aisiarako igerilekua egokituko dute udako denboraldiari begira: txirristak eta ur korrontedun kanala izango ditu. Igerileku horren inguruan, hiru aldetan, eguzkia hartzeko zelaia egongo da. Zelaiko zati bat, baina, umeendako egokituko dute, jolastokia



Orain dagoen tokian egingo dute Ipintzako futbol zelaia berria.

izango da. Taberna bat ere jarriko dute, uda parterako bereziki. Taberna horrek mahaia eta eserlekuak izango ditu. Eraikin barruan beste taberna bat egingo dute, eta urte osoan irekita izango da. Barruko taberna bigarren solairuan egongo da.


GIMNASIO GUZTIAK AGORROSINEN

Sei gimnasio egingo dituzte. Sarrera nagusitik sartuz gero, eskuman egongo dira gimnasioak. Horietatik, bi *fitness* gimnasioak izango dira, hau da, makinak izango dituzte. Gainerakoetan mantentze-gimnasia eta aerobic eskolak emango dituzte, besteak beste. Gaur egun, Mariaren Lagundian eta Martinez de Iralako egoitzetan ematen ditu Udalak gimnasio saioak. Kirolgune berriarekin gimnasio guztiak hantxe jarriko dituzte. Gimnasia joaten direnendako aldagelak eta dutxak ere jarriko dituzte.

Bestalde, beheko solairuan hiri-bainuetxe izenekoak jarriko dute: hidrotapia igerileku bat, bi jacuzzi, bi bainu turkiar, masaje gela bat, solariuma eta hainbat aldagela egitea aurrez ikusi dute. Alboan, beheko solairuan bertan, mediku kontsulta, osasun azterketak egiteko gela eta errehabilitazio gela egongo dira.

FUTBOL ZELAIA, BELARREZKOA

Gaur egun, hondarrezkoa da Ipintzako futbol zelaia, eta ez da egokiena futboleko aritzeko. Horregatik, aurreproiektuaren arabera, belar artifizialezkoa izango da etorkizunean. Orain dagoen tokian egingo dute zelai berria. Gimnasia egokitu dituzten aldagelak erabiliko dituzte futbol jokalariek, eta, halaber, epaileendako bi aldagela egingo dituzte.<



Kentzeko eta ipintzeko estalkia

Aisiarako igerilekuari estalkia kenduko diote udan

Ipintzako futbol zelaia

Belar artifizialekoa izango da zelai berria

Kirol sariak astelehenean banatuko dituzte Errotalden

Astelehenean, aurten-go kirol sariak banatuko dituzte kultura etxean, arratsaldeko 19:30ean. Udal Kirol Zerbitzuak eta BERRIGARA astekariak herriko kirolariak amaitu berri den denboraldian egindako lana nabar-

mentu nahi izan dute. Horretarako, talde bakoitzak kirolari bat izendatzeko aukera izan du. Bergara Kirol Elkarteko futbol sailaren kasuan, lehen erregionalerara igo den futbol taldea izan da saritua.

Bestalde, urtero banatzen den sari berezia Agustín Toledok jasoko du. Agustinek hainbat urte daramatza gutxituendako atletismo probetan parte hartzen. Aurten, gainera, denboraldi bikaina egin du.

Izan ere, Espainiako Txapelketan urrezko domina lortu zuen pisu jaurtiketan, ekainean. Kirol talde onenari ere saria emango diote asteleheneko ekitaldian. Herriko kazetariak erabakiko dute zein den irabazlea



Agustín Toledo. SARI BEREZIA Gutxituendako Espainiako Atletismo Txapelketan urrezko domina pisu jaurtiketan.



2. erregionaleko taldea
BKEko futbol saila
Lehen erregionalerara igo da aurten.



Markel Cestafe
Beti-Busti taldea
Infantil B mailako Gipuzkoako azpitxapelduna.



Maria Romero
Saskibaloiz saila
Eskoriatzan aritu da hainbat urtez.



Jose Joaquín Gómez
Bergarako Lagunak
Hasieratik dihardu areto futbol txapelketan.



Joseba Herran
Pilota saila
Gipuzkoako banakako txapelduna gazte mailan.



Aitor Jaso
Badminton taldea
Maila ona erakutsi du.



Irati Arteaga
Ariznoa gimnasia taldea
Gipuzkoako Txapelketan bigarren.



Mikel Plazaola
Eskubaloiz saila
Kadete taldean denboraldi bikaina egin du.



Markel Larrañaga
Karatea
Espainiako Karate Txapelketan parte hartu du.



Zigor Medina
Lokatza
Gipuzkoako gazte mailako itzulian herriko onena.

Lagunen omenaldia jaso zuen 'Moztu'k Ipintzan

Egubakoitzean, omenaldi hunkigarria egin zioten Jose Antonio Kortabarría 'Moztu' zenari. Amilotekeko veteranoen eta beste hainbat herritarren arteko partiduaren atarian, familiak hainbat opari jaso zituen lagunak, Ipintzako antolatzaileen eta Udalaren partetik. Dantzariak agurra eskaini zieten eta 'Moztu'ren anaiak ohorezko sakea egin zuen. Partiduan 60 lagun inguruk parte hartu zuten.



Jende asko batu zen egubakoitzean 'Moztu'ri egunik omenaldian.

Txirrinduzaleen irteera

Bergarako Txirrinduzale Elkartek irteera egingo du zapatuan, hilak 14, Laredora. Hala, azken urteotako ohitura-ri eutsiko diote. Autobusa 05:45-06:00ak aldera irtengo da Oxirondo azoka ondoko autobus geltokitik. Txirrinduzaleak Ramales herriraino joango dira autobusez, eta hara heldutakoan bizikleta hartu eta Laredorainoko ibilbideari ekingo diote.

Arrasatearrak txapeldun frontenisean

Jose Izquierdo eta Candido Hurtado arrasatearrek Bergarako IV. Frontenis Txapelketako finala irabazi zuten zapatuan. Angiozarko frontoian jokatu zen finala, eta Alejo Garcia eta Carmelo Barcala bergararrak bigarren postuarekin konformatu behar izan ziren, finala 35-28 galdu eta gero. Bestalde, 3. posturako partiduan Patxi Vallejos eta Xabier Albisua bergararrek 35-23 irabazi zieten Gerardo Eskarza eta Carlos Odriozola oñatiarrei.



INAKI UGARTEBURU

DENA 100etik

ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta 3



TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txitxizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi 1 Tf. 943 76 39 53



Irizar 2
943 76 14 95

JAUJA KIROLAK



OGIZUN
koop. elk.
okindegia

San Pedro 21 Zubillaga z/g
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13

Jose M. Martín

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 666 517 295

IPINTZAKO futbol txapelketa



Txapelketa azken txanpan

Gaur egubakoitza, hilak 13, kadete eta senior mailetako nesken finalak jokatuko dira 18:30etik aurrera Ipintzan. Kadeteen finala Eibartarrak eta Fashion Fashion taldeek jokatuko dute, eta senior mailakoan Arloteak eta Ogizun izango dira aurrez aurre, eguazteneko finalerdietan garaile izan ondoren. Bestalde, nagusien futbol txapelketa ere azken txanpan dugu: Arloteak, Bildurbarek Opel Lam, Angiozar eta Mongatxurrak taldeak izan dira finalerdietara igaro direnak. Bildurbarek Opel Lam eta Arloteak taldeek penalti jaurtiketetan lortu zuten finalerako txartela, A Ze Flaxa eta Osintxu taldeen aurka, hurrenez hurren. Astelehenean eta martitzenean jokatuko dira finalerdiak eta datorren egubakoitzean finala izango da. Bestalde, beteranoen mailako finala eguenean, hilak 19, jokatuko da, 19:30ean.

azken emaitzak

NAGUSIAK

Bildurbarek Opel Lam-A Ze Flaxa 0-0

Arloteak-Osintxu 1-1

Mongatxurrak-Altos Pornos 4-1

Angiozar-Fo Fo Fo 2-0

BETERANOAK

Arloteak-Angiozar 6-2

Amilotx-Guipuzcoana 2-3

Bar Canalejas-A Ze Flaxa 2-13

Bildurbarek Opel Lam-Ezinleike 8-0

NESKAK

Ogizun-Arloteak 1-0

Lai Lai Lai-Ou Pitxu Ou 9-0

Ogizun-Potzu ta zapaburuak 3-0

Arloteak-Lai Lai Lai 3-0

partiduak

NAGUSIAK

Astelehena 16

19:30: Arloteak-Bildurbarek Opel Lam (finalerdia)

Martitzena 17

19:30: Angiozar-Mongatxurrak (finalerdia)

Egubakoitza 20

19:30: Finala

BETERANOAK

Eguena 19

18:30: 3. eta 4. posturako partidua

19:30: Finala

NESKAK

Egubakoitza 13

18:30: Eibartarrak-Fashion Fashion (finala)

19:45: Ogizun-Arloteak (finala)

sailkapenak

A multzoa

	P	J	GA	GK
1. Bildurbarek Opel Lam	12	5	13	3
2. Altos Pornos	10	5	7	4
3. Toju	9	5	14	4
4. Torrekua	7	5	8	11
5. Killer's	4	5	7	12
6. La Juve	1	5	8	23

B multzoa

	P	J	GA	GK
1. Osintxu	12	4	19	3
2. Fo Fo Fo	7	4	21	9
3. Txokokuak	7	4	10	5
4. Los Pepinos	3	4	3	18
5. Getokuak	0	4	3	21

C multzoa

	P	J	GA	GK
1. Mongatxurrak	12	4	14	2
2. A Ze Flaxa	7	4	10	3
3. Gore	5	4	6	6
4. Game Over	3	4	5	18
5. Mongitxurak	1	4	4	10

D multzoa

	P	J	GA	GK
1. Angiozar	10	4	13	2
2. Arloteak	9	4	11	3
3. Down	5	4	5	7
4. Matxakategi	4	4	6	6
5. Drink Team	0	4	2	19

Beteranoak

	P	J	GA	GK
1. Angiozar	18	7	45	17
2. A Ze Flaxa	15	7	37	22
3. Bildurbarek	14	7	38	19
4. Guipuzcoana	11	7	27	23
5. Amilotx	7	7	16	34
6. Ezinleike	6	7	18	34
7. Arloteak	5	7	22	30
8. Bar Canalejas	4	7	16	40

Neskak, seniorrak

	P	J	GA	GK
1. Ogizun	18	6	36	3
2. Arloteak	15	6	27	5
3. Lai Lai Lai	10	6	28	11
4. Potzu ta zapaburuak	10	6	24	11
5. Pentol's Team	6	6	15	26
6. Ou Pitxu Ou	3	6	6	40
7. Arranua	0	6	2	42

Neskak, kadeteak

	P	J	GA	GK
1. Eibartarrak	15	5	38	3
2. Fashion Fashion	10	5	16	10
3. Txotx	9	5	23	13
4. Elgeta	7	5	10	14
5. Jo ta Ke	3	5	3	11
6. Mariaren Lagundia	0	5	3	42

Neskak, alebinak

	P	J	GA	GK
1. Arloteak	12	4	53	0
2. Soraluze	9	4	43	12
3. Lotsagabeak	6	4	10	15
4. San Martin	3	4	4	46

URKIOLA
Bidekurutzeta, 42. 943 76 16 48.

% eraino



ZINEMA ETXEAN
Teknologia aurrerakoiena zure esku

Herran

SUKALDEKO ALTZARIAK

Vegasa banatzaile ofiziala

Matxiategi, 4

943 76 37 53



ELEKTRIKAKO TRESNAK

Soinua, telebista, hozgailuak...

Matxiategi, 3

943 76 12 22



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR



bonofotoa


Irudi hauek iturri batenak dira. Iturria eliza baten ondoan dago. Nongo iturriaz ari gara?

galde debalde

1. Zein igerilekuri kenduko diote estalkia etorkizuneko Agorrosingo kirolgunean?
 A- Igerileku handiari
 B- Hidroterapia igerilekuari
 C- Aisiarako igerilekuari

2. Zein bikotek irabazi zuen zapatuan frontenis txapelketako finala?
 A- Albisua eta Vallejos
 B- Garcia eta Barcala
 C- Izquierdo eta Hurtado

3. Zela du izena hilaren 20ko jaialdian esku hartuko duen Ourenseko dantza taldeak?
 A- Castro Floxo
 B- Muiñeira
 C- Ourense



Aurreko aleko saria **Arantza Arrese-Igorrentzat** izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Arantzari! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:

Bonofotoa: **olibondoa**

Galde Debalde: **1-C, 2-B, 3-A**

Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du **BERRIGARAK** asmatzaileon artean!

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: 2: 3:

Izen-deiturak:

Telefonia:

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! **SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!**

Koipe
 oliba olio, 1° nahiz 0,4°, litroa
349 PTA!

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



Folklore jaialdia pilotalekuan Xamatz eta Ourenseko Castro Floxo dantza taldeekin

Hilaren 20an, folklore jaialdia izango da udal pilotalekuan. Bergarako Xamatz eta Ourenseko Castro Floxo dantza taldeak buruz buru izango ditugu han. Euskal Herriko eta Galiziako dantzak uztartuko dituzte.



Argazkian, Castro Floxo, Ourenseko dantza taldea.

Galizian, Ourense ei da dantzarako tradizioa ondoren gorde duen probintzia. 1984. urtean Dantza Eskola Probintziala sortu zuten. Probintzia osoan banatuta dituzten eskoletan 5.000 ikasle inguruk ikasten dute. Eskolaren helburua da Galiziako musika, dantza, abestiak -hau da, folklorea- ezagutzera ematea.

Bergarara hurbilduko den taldea, Castro Floxo, dantza eskola horren baitan

sortu da. Eta, jakina, Galiziako doinu eta dantzak ekarriko dituzte gure artera: muiñeirak, jotak, mazurkak eta pandeiradak, besteak beste. Taldea berrogei dantzari osatzen dute, eta dantzez gain, ikusgarria da, benetan, dantzarien janzkera.

Dantzaren arabera, batzuk lanerako jantzi sinpleak dira, eta beste batzuk, aldiz, festa giroko oso jantzi dotoreak.

Horrez gain, zenbait herrialdetako nazioarteko jaialdietan jardun du dantzan: hala nola Alemania,

Austria, Estonia, Grezia, Taiwan eta Mexikon.

XAMATZEN EKIMENA

Xamatzek, herriko taldeak, antolatu du folklore jaialdia. Jabier Mendizabalen bitartez Galiziako taldearekin harremanetan jarri eta, hala, herrira ekarriko dute.

Xamatzek berak ere parte hartuko du jaialdian, eta euskal probintzia ia guztietako dantzak eskainiko ditu. Horrela, bada, Castro Floxo eta Xamatzen dantzak tartekatuta, Galizia eta Euskal Herriko dantzen erakustaldia izango dugu hilaren 20an, 22:30ean, udal pilotalekuan.

Folklore jaialdiaren aurretik, 20:30 aldera, bi dantza taldeek kalejira egingo dute.

Musika Bandaren kontzertua domekan, Santa Marina eguna

Domekan, hilak 15, Santa Marina eguna ospatzeko, kontzertua emango du Udal Musika Bandak Fraiskozuri plazan, 12:30ean. Bost obra joko ditu: Alfredo Gonzalez Chirlaque-ren *Lasai-Toki*, 25. urteurrena bete duen elkartearen omenez; Rossiniren *Tancredi* obertura; Torremuskizen *Euskaros* suitea; Jimenezen *La boda de Luis Alonso* intermezzo; eta Bonfaren *Song and Samba*.

Kontzertuaren aurretik, 11:30ean, kalejira egingo du Udal Musika Bandak. Kalejiran *Haize-pe* obra joko du, elkarte horrek ere aurten hogeita bost urte egingo ditu-eta.

The Big Jamboree taldeak gaur, egubakoitza, joko du

Joan den astean iragarri genuen The Big Jamboree taldearen kontzertua atzo, eguna, izan behar zela, baina gaur, hilak 13, izango da. Espolioan, gaueko 10:00etan.

Bestalde, datorren egunean, hilak 19, V.O.S. Quartet taldeak kontzertua emango du toki eta ordu berean. Pop, rock eta folk musikako doinu ezagunak hartu, eta jazz musikaren elementuekin nahastutako musika egiten du laukote horrek. Roberto Yaben (gitarra), Joseba Loinaz (teklatuak), Jose Quintas (kontrabaxua) eta Pablo Diazek (bateria) osatzen dute taldea.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

CAMACHO

Drogeria Usaindegia

Bidekurutzeta 24 BERGARA
☎ 943 76 13 35



Lagun koadrila Antzuolan, 1956

Atzo hasi eta domekara bitartean Antzuolako jaiak ospatuko dira. Oraingo asteko erretratu zaharra duela 45 urteko jaietan ateratakoa da, 1956an hain zuzen. Sasoi hartan, abuztuan izaten ziren Antzuolako jaiak, eta maiuraren alardea abuztuaren 26an egiten zuten. 1980ko hamarkadaren hasieratik, berriz, uztailan ospatzen dira jaiak Antzuolan. Esan bezala, goiko erretratu 1956koa

da. 1950 urtearen inguruan, abuztuaren 27an, jaien azken eguna ospatzen hasi zen, ordura arte lan eguna izaten baitzen. Antza denez, elkarrekin bazkaltzeko biltzen ziren koadrilak egun horretan. Argazkian agertzen direnek 24-25 urte izango zituzten orduan, eta erretratu Arin taberna aurrean ateratakoa da. Jesus Agirrek azaldu digunez, gazteek xelebrequeriak egiten zituzten jaietako azken egunean. Esate baterako, bazkaltzeko

menua leka-patatak galletekin eskatu zutela gogoratu du Jesussek. Hauek dira argazkikoak, ezkerretik eskumara:

Zutik: Jose Mari Larrea, Jesus Agirre, Maximo Aristi eta Enrike Jauregi.

Jarrita: Jose Mari Kortabarria eta Jose Joakin Zubillaga.

Argazkia: Jesus Agirre.

 **Manufacturas LARRAÑAGA**

- Lan-babeserako artikulak
- Seinaleztapena
- Lanerako jantziak

Leizeaga 1.
Tf. / faxa 943 76 59 53.

 **zumelaga**
JATETXEA

58 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21

 **MEMESA**
INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldean erreforma, pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59

LONBIDE
ONETAKOAK



Bidekurutzeta 5
BERGARA
☎ 943 76 10 57



Aldoka
Maldoka
TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

Uda
izugarria!



IRALA
VIDEOMATIC Plus Bideoak

Kruz Gallastegi 7. 943 76 21 81. Faxa: 943 76 73 33.
video_irla@jet.es



Laster SIMON ARRIETA plazan!

ARREGI AROZTEGIA



Sukaldeak
Arozlan mekanikoak
Ateak
Horma-armairuak

Tarimak eta Parketak
Neoprenozko juntadun
egurrezko leihoak
PVCzko leihoak



Tailerra Urteaga, 20. 943 76 11 73 Erakusketa Bidekurutzeta, 38. 943 76 31 03

Sofa
leku

GRUPO



**Amuebladora
Mondragonesa**



www.grupo-aeme.com

Zigarrola kalea 1, 5 pabilioia • Tel.: 954 77 14 92 • ARRASATE

